



ESTRABISMOKO KIRURGIA OSTEKO GOMENDIOAK

Ebakuntzaren ondoren, ikusmen lausoa eta mina izan ditzakezu begi-mugimenduekin. Konjuntiban puntuak izango dituzu, eta horrek mina eragingo dizu kliskadak egitean; puntu horiek bakarrik eroriko dira aste batzuetan.

LEHEN HILABETEAN:

- Ez duzu ahalegin fisikorik egin beharko, ezta pisurik altxatu ere.
- Ez egon animaliekin kontaktuan.
- Kea edo hautsa dagoen giroetatik urrun egon beharko duzu.
- Ez zara igerilekuan edo itsasoan bainatu behar.
- Ez igurtzi begiak, kontuz ibili aurpegia edo ilea garbitzean.
- Garrantzitsua da begia makarrik gabe edukitzea.

Umeei dagokienez:

- Lehen astean etxean atsedean hartu, ikastetxean istripuzko traumatismoak saihesteko.

Helduei dagokienez:

- Ez duzu ibilgailurik gidatu behar, ezta landan lanik egin behar ere.
- Ez makillatu begiak.

EBAKUNTZARIK GABEKO BEGIAN: ohiko tratamenduari eutsi, baldin eta halakorik baduzu.

TRATAMENDUA: [eduki ezazu txaplata oftalmologoak aztertu arte.](#)

GOMENDIO OROKORRAK:

- Irakurri eta telebista ikus dezakezu nekatu gabe.
- Betaurrekoak urrutitik zein hurbiletik erabili behar dituzu.
- Eguzkitako betaurrekoak erabil ditzakezu, beharrezkoa dela uste baduzu.
- Ohiko dieta eta medikazioa hartzen jarraituko duzu.
- Ohikoa da nolabaiteko mina sentitzea, kirurgia egin bezain laster, bai eta beste egun batzuetan ere. Arindu dezakezu alta-txostenarekin batera eman dizuten medikazioa hartuta.